

## ARTZA UDAL FRONTOIKO TABERNA ETA KANTXA USTIATZEKO KONTRATU BEREZIAREN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

### 1.- HELBURUA.

Artza Udal Frontoiko taberna eta kantxaren zerbitzua ematea da deialdi honen helburua, Plegu honetan eta Baldintza Administrazioen Pleguan ezarritakoaren norainokoaz eta edukiaz.

### 2.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

Administrazio-baldintza zehatzen orrietan ezarritakoez gain ondorengoak jagokoz:

a) Oinarri honeetatik gertatzen diran baldintzetan zerbitzua emotea, halaber, herriaren interesen zioengaitik Patronatoak ezarri leikezan aldaketekaz, jagokon konpentsazio ekonomikoagaz, benetako eta ebaluagarriak diran kalte ekonomikoak egonez gero.

b) Tabernaren erabileran hirugarren bateri egindako kalteen ordainsaria ordaintzea.

d) Oinarri honeetan ezarritako baldintzetan edo herriaren interesa kontuan izanda sartu ahal daitekezan aldakuntzen arabera zerbitzua emotea.

Benetako kalte ekonomiko ebaluagarriak gertatuz gero, konpentsazio ekonomikoa izango leuke.

e) Kontratua sinatzen denean 30 eguneko gehiengo epe barruan zabalduko da taberna. Zabaltzea egin barik epe hori igaro ondoren, Batzorde Errektoreak ustiatze kontratua deuseztatu egin daike.

f) Tabernako instalakuntzak jagon, ostalaritzako honelako establezimenduetarako bereziki aplikagarria dan araudia zehatz eta mehatz gorderik.

g) Jagokon kategoriari jagokozan ustiatzearen helburua eta muga orokorrak errespetatu. Esleipendunak ezin izango dau aldatu zerbitzua emateko tabernaren lokalen destinoa, egoera onean mantentzera behartuta dagoalarik, egin behar diran konponketak eginez, baita erabiltzaileek egindako narriaduren erantzunkizuna ere izango daualarik.

Kontratuaren amaieran hartu dauzan moduan entregatzen behartuta dago.



Ezin izango dau egin egitura aldatu daiken obrarik, ez eta Udalaren Kirol Patronatuaren baimen espresu barik makinaria barririk jarri ere.

Tabernaren kategoria aldatzeko udalaren baimena beharko da baita.

h) Esleipenduna behartuta dago eskuduntzadun Erakundeek behar dabean Osasun, Turismo, Ogasuna edo, ostalaritza garapenerako behar diran bestelako lizentzia, baimenak, ea. egunean eukiten.

i) Zerbitzua emoteko orduan kaltetutako hirugarren batzuk indemnitzatzea. Horretarako, kontratua sinatzerakoan, taberna zerbitzua dala eta, erantzunkizunagaitik, tabernako erabiltzaileak sartzen dan 60.000 € gitxiengo arrisku polizaren suskripzioa kreditazen dauan dokumentazioa aurkeztu beharko dau esleipendunak.

j) Hileko lehen lan egunean ordainduko dau kanona.

k) Jardueratik eratorritako tasa eta zerga guztien ordainketa.

l) Erabiltzaileen eta tabernan lan egin behar dabenen jarrera egokiaz erantzun beharko dau.

ll) Zerbitzua emoten dauan bitartean euskeraz ariko da.

m) Tabernaren kontserbazio eta mantenimendu gastuen kargu egitea, argia, ura eta garbiketa barruan diralarik. Aurrekoez gain eta Patronatuak kantzaren lanak esleipendunari emoten deutsozanetik hasita, ondorengoa egin beharko dau:

1. Frontoia erabiltzen dabenen kontrola eroan (ordutegiak banandu, kobratu eta erreziboak egin, etab.)
2. Frontoiaren eta haren instalakuntzen erabilera egokia segurtatu, ekintza kulturalak, mitinak edota Udalaren Kirol Patronatuak baimendu edo antolatzen dauzan gainerako jarduerak garatzen diranean.
3. Frontoiaren instalakuntzen egoera egokia segurtatu, garbitasuna gainbegiratu eta ikusitako akatsen barri Udalaren Kirol Patronatuko Zuzendariari eman edota Zerbitzu Sailean.
4. Zerbitzua betetzeko eskatzen dan kualifikazioaz bat etorririk, emoten jakozan lanak betetzea.

### **3.- UDAL PATRONATUAREN BETEBEHARRAK.**

Administrazio-baldintza orrietan ezarritakoez gain honako honeek jagokoz:

- Instalazioen erabilera erraztu.



- Kantxako bere lana hasten danetik, hilero ordaindu beharreko prezioetik 160 euroko murrizketa aplikatzea.
- Tabernaren kanpoko aldean terraza bat jartzeko baimena eskatzea Portu Zuzendaritzari.

#### **4.- IUS VARIANDI.**

Administrazioak interes publikoak horrela eskatuko baleu, beharrezkoak liratekeen kontratuzko aldakuntzak sartuko leukez, gerta daitekezan benetako kalteak esleipendunari ordainduz.

#### **5.- ORDUTEGIAK.**

Jarduerako funtzionamenduaren ordutegia, kantxari jagokonez, Udalaren Kirol Patronatuak ezarriko dauana izango da. Alderdi bien adostasunez aldatu daitekelarik.

Gorde beharko dan gitxiengo ordutegia, ondorengoa izango da:

- Astelehenetik barikura: 10,00 - 22,00
- Larunbatetan: 10,00 - 20,00
- Igandetan eta jaiegunetan: 10,00 - 14,00

Tabernari jagokonez bere kategoriarentzat orokorrean ezarritako ordutegia gordeko da.

#### **6.- DEBEKUAK.**

Esleipendunak ezin izango dau itzi, berrakuratu edo jabez aldatu, ez eta beste inolako erako eskubideen lagapenik egin ere.

#### **7.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOAK ETA ONDORIOAK**

Guztirako egongo da Sektore Publikoaren kontratuen 30/2007 legearen 262, 263, 264 eta 265 artikuluek ezarritakoaren arabera.

Bermeon, 2010eko abenduaren 9an

